

HIRIAREN SORRERATIK AZKEN BRONTZE AROA ARTE

1. HIRIEN SORRERA MESOPOTAMIAN

1.1 HIRI-IRAULTZA

AURREKARIAK: NEOLITIZAZIOA

Neolitizazioa munduko hainbat tokitan eman zen eta Mendebaldeko Ilgora Emankorretik zabaldu zen. Horri esker, lur eremu berdinetik produktibitate handiagoa lortu zen. Horrez gain, populazioa handitu eta kontzentratu egin zen, hiri asko sortuz.

Aipatzekoa da hiri-iraultzaz dugun informazio asko Gordon Childe historialariari esker dugula. Azken honek Europako historiaurrea ikertu zuen eta 1950ean The Urban Revolution liburua argitaratu zuen.

Horrela, hiri-iraultza Mesopotamian gertatu zen, Tigris eta Eufrates ibaien arteko lurraldean. Lehen hiriak Egiptoko Nilo ibai inguruan eraiki ziren.

URUK KULTURA

Uruk hiria izan zen gehien industu zen tokia eta bere egin zuen izena bertako kulturak. Hiri honek koloniak zituen Goi Mesopotamian, Sirian... baina ez zuten Urukekiko menpekotasunik, aliantza sareak baizik. Hiri guzti horiek ibaien ondoan kokatuta zeuden, ureztatzeko zein horren gestiorako toki aproposenak zirelako.

- Uruk kulturako gizarteak

Orokorrean, ibaietan nekazaritza lantzen zen, lurra egokia zelako eta uraren kanalizazioarekin lana errazten zelako. Estepetan abeltzaintza eta ehiza lantzen zen eta paduretan arrantza nagusiki.

Biztanleriaren hazkundeak eragin handia izan zuen, izan ere, ez zen beharrezkoa biztanle guztiak elikadura ziurtatzeko lanean ibiltzea, pertsona asko beste gauza batzuetan espezializatzeko aukera zabalduz. Horrela, biztanle bakoitzaren esfortzua lan bakarrean kontzentratzen zen eta gaitasunak garatu ziren, hala nola, artisautza, oihalgintza edota metalen fundizioa.

Artisautzan tornu altuak sortu ziren eta horrela zeramika finagoa eta produkzio altuagoa lortu ziren. Gainera, brontzearen eta gurpilaren erabilerak zabaldu ziren.

Merkataritzan trukeen kopuruak gora egin zuten eta Siria zein Anatoliaraino hedatu ziren sareak finkatu ziren.

Burokrazian, soberakinen birbanaketa antolatzeke funtzionarioak izendatu ziren, baita beraien lana erraztu zein estandarizatzeko idazkera asko garatu ere.

- Antolamendua

Sortutako lan motaren araberako gizarte taldeak bereizi eta hierarkizazio bat eman zen; alde batetik elite erlijioso-politikoak zegoen, ondoren artisau espezialistak eta azkenik gainontzeko biztanleria.

Bestalde, teokrazia indartu zen gizarte honetan; horrela, tenpluaren boterea gailendu zen eta horiek baliabideen kontrola zuten, lurjabe nagusiak izatearekin batera. Ondoren, botere banatzailea egokitzen zitzairen, biztanleriaren artean banatzeko. Bertan, apaizek funtzio erlijioso, politiko eta militarrek eskuratu zituzten. Gainera, beraien boterea legitimatu eta gaitasun

sozialak indartzeko ikonografia erabiltzen zuten; nagusitasuna bermatzen zuten irudi handiagoekin, bizardunekin eta jantzi bereziekin.

HIRIEN MONUMENTALIZAZIOA → Hiri garrantzitsuek eta oro har, tenpluek garrantzia eta boterea eskuratu zuten, monumentalizatu egiten ziren; horrela, plataforma itxurako goialdean eraiki eta boterea aldarrikatzeaz gain, uholdeetatik babestea bermatzen zuten. Horrela, eremu sakratuak eraikitzen zituzten.

- Idazkera

Kultura honetan Adobezko taulatxoetan idazten zuten eta ezagututako zaharrenak Uruk hirian bertan agertu ziren o.a.a. 3300-3200 urte bitartean. Idazkera hau tenpluetan garatu zen, kontabilitatean erabiltzen baitzen gehienetan, hala nola, produktuak eta pertsonen jarraipena egin edota materialen bilketa jasotzeko, zergak ordainduz.

Hasieran, idazteko piktogramak erabiltzen zituzten, baina denborarekin idazkera abstraktuagoa egiten joan zen, sistema egonkorragoa garatuz. Aipatzekoa, piktograma horiek Ekialde Hurbileko beste hizkuntza batzuetan ere agertu direla. Sinatzerako orduan, zigilu txikiak erabiltzen zituzten, autoritate marka eta oniritziaren ikur zirela.

Idazkera honek gizartearen antolamendua eta ekonomia ulertzen lagundu zuen.

- Uruk kulturaren hedapena

Mesopotamia hegoaldean eragin nabarmena izan zuen, eta kultura honek aurreko asentamenduak eman ziren berriekin batu zituen. Elementu nagusitzat erabiltzen zituzten, alde batetik eraikinak, dekorazioak, zeramika... eta bestalde ekonomia eta hierarkizazioa.

Merkataritza harremanak sortu zituzten beste hiri zein herrixkekin eta bertan lehengaiak zein luxuzko produktuak (prestigiozkoak) elkarbanatzen zituzten. Truke guzti horiek, ordea, hirietako eliteen esku egoten ziren eta bertako politikan eragin zuzena izaten zuten.

URUK HIRIA

Uruk hiria gaur egungo Warka (Irak) hirian zegoen kokatuta eta inguruko natura baliabideak ere bere barne hartzen zituen. Hiriaren erdian Eanna tenplu multzo harresitua aurkitzen zen eta bertan bi jainko nagusitzen ziren; Inanna emankortasunaren jainkosa eta Anu zeruaren jainkoa.

Tenplu multzo honen inguruan tributuak ordaindu zein hainbat kontu eramaten ziren. Gainera, merkataritza trukeen gune bilakatu zen eta bertan lehenengo idazketa taulatxoak agertu ziren.

Tenplu multzoak lortutako gehiengo azalera 250 hektareakoa da eta bertan ikonografiaren bitartez, hainbat aztarna arkeologiko aurkitu izan dira.

URUK GARAIAREN AMAIERA

K.a. 3100 urte inguruan, Uruk hiriko inguruko koloniak hiriarekin zituzten harremanak eteten hasi ziren eta hainbat gune suntsitu egin ziren. Oro har, hiriak despopolatu eta asko eta asko lehengo asentamenduetara itzuli ziren. Egoera horretan, hiriek eta ondorioz Urukek nagusitasun eta zentraltasun guztia galdu eta tenpluak abandonatu ziren.

1.2 HIRI-ESTATUA SUMERREN

IDAZKERA eta ITURRIAK

Uruk desagertzean, beste hiri batzuk sortu ziren inguruko lurraldeetan eta hiri-estatu bezala eraiki ziren, Sumeriako eskualdeari forma emanaz. Hala ere, idazkera abstraktuagoa erabiltzen zuten eta horrek argiago edo erabilgarriagoa egin zuen idaztea. Tipologia berriak garatu ziren

eta iturritzat dokumentu administratiboak izateaz gain, historiografikoak zein literarioak agertzen hasi ziren.

ERREGE-INSKRIPZIOAK→testu laburretatik luzeagoak idaztera pasatu ziren eta izenak edota datuak idatzi beharrean, ekintzak edo egoerak deskribatzen zituzten. Horrela, kanpaina militarrek, tenpluen eraikuntzak edota lehen lege kodeak azaldu ziren. Azken hau oso sinplea zen eta gizartea antolatzeko modu zehatzago bat azaltzen zuen. Lagash hirian, adibidez, 120 errege-inskripzio aurkitu ziren.

SUMERREKO ERREGEEN ZERRENDA→Ondorengo gizarteak legitimazioa bilatzeko sortutako garai mitikoen baitan garatu ziren. Sumerian, erregeen zerrenda bat zuten (II. milurtekoa) eta bertan nagusitutako erregeak agertzen dira, boterea legitimatuz. Hala nola, Gilgamesh Urukeko pertsonaia mitologikoa agertzen da. Horrela, bigarren maila iturria denez, ez da guztiz fidagarria eta neurtzen jakitea beharrezkoa da.

HIRI-ESTATUAK: SUMER

Hiri-estatua oinarritzeko antolamendu unitatea bihurtzen da eta Sumerian 35 inguru existitu ziren. Hiri horiek inguruko lurraldean hartzen zituzten behar ekonomikoak asetzeko. Gainera, asko ibaiertzetan kokatzen ziren, baliabideak eskura izateko eta kanalizazioak egin ahal izateko.

Sumeria ez zen inperiotzat ulertzen eta boterea hirien artean banatuz zihoan. Hala ere, hiri guztiek ez zuten botere berdina; alde batetik, Nippur zen botere erlijiosoaren erdigunea eta bertan haizearen Enil jainkoa zegoen. Bestalde, Kishek garrantzi mitologiko zein estrategikoa irabazi zuen, bi ibaiak bertan elkartzen zirenez, merkataritzarako gune ezinhobea baitzen. Gainera, dilubio ondoren erregetza bertan kokatu zen.

- Erlijioa

Hiri-estatuetan erlijio politeista praktikatzen zen eta lurralde guztietan erlijio bera zuten. Hala ere, hiri bakoitzean jainko-jainkosa nagusi bat gurtzen zuten, hala nola, Ur hirian Nanna nagusitzen, Uruk hirian Inanna eta Nippurren Enil.

Hiri horietako jainkoak antropomorfikoak ziren eta fisikoki gizaki itxura hartzen zuten, elementu bitxiekin. Hala ere, gizakion beharrak zituzten, hala nola, jatea, arropa janzte... baina haien erosotasunerako gizakiek eskaintzak egin behar zituzten.

Oro har, tenpluak ziren eraikin edo erakunde erlijioso nagusiak, eta bertan erlijioa praktikatzeaz gain, material eta baliabideen birbanaketa burutzen zen.

- Boterearen banaketa

Hiri-estatuaren sorreran ez ziren gatazka handiak ematen, baina III. milurteko hasierako hazkunderaren eraginez, liskarrak sortu ziren; lur berrien okupazioak beharrezko lehengaiak eskuratzea ahalbidetzen zuen, eta horrek hirien arteko gatazkak sortarazi zituen. Gainera, lur horrek ere populazioaren zati bat bertan kokatzeko eta barne gatazkak ekiditeko nahi zituzten.

Lurrak handitzean eta gatazkak egotean, buruzagi militarrek izendatzea behar bihurtu zen. Horrela, erregeek eta apaizek boterea galdu zuten Sumerian, eta Lugal izeneko gizon bat nagusitu zen. Orokorrean, apaizgoa eta botere sekularren bereizketa bat ematen hasi zen, nahiz eta erlaxionatuta egoten jarraitu. Apaizek gerrarako gaitasuna galdu zuten baina jainkoaren babestutzat definitzen ziren, beraien burua legitimatuz.

Hala ere, baliteke asanbladak egon izana eta erregea inguruko kortisalek aukeratzea.

Errege-apaiz figurak jarraitu zuen eta En zuen izena, eta bere emazteak Nin. Gainera, Ensi izeneko gobernadorea zegoen, jainkoaren aurrean erregea ordezkatzeko zuena.

Hiriguneetan jauregiak eraikitzen hasi ziren eta tenpluak bezain garrantzitsuak izatea lortu zuten garai horretan. Tenplua (*é* izena) administrazio gune nagusia zen eta jauregia edo etxe handia (*é-gal* izena) erregea eta kortesien bizilekua zen. Hiriak, oro har, harresituta agertzen ziren gatazkak zirela eta.

- Gizartearen banaketa

Sumerian ere gizartearen estratifikazioa eman zen eta desberdintasun sozialak sakondu ziren; goialdean Lu estraktua zegoen, agintariek, apaizek, funtzionarioek eta jauregi/tenpluko artisauek osatzen zutena. Ondoren, Mashda estraktuan hiritar askeak, nekazariak, artisauek eta langileak kokatzen ziren. Azkenik, esklabuen estraktuan gerretako atxilotuak eta kanpotarrak aurkitzen ziren, nahiz eta esklabuek hainbat eskubide izan eta beraien seme-alabak askeak ziren.

Estatu burokratikoak eratu zen eta botereak nekazari zein herritarren gainean agintzen zuten. Hori, ordea, erreforma ediktuen bitartez egiten zen, errege jakin baten administrazioak plazaratutako agiriaren bitartez, hain zuzen ere.

- Lurren banaketa

Abeltzaintzarako lurak ereiteko etekin txikikoak ziren, baina beharrezkoak ehunak, haragia eta beste lehengai batzuk lortzeko. Lur horiek hirietako mugetan kokatzen ziren.

Bestalde, nekazaritzarako lurren %25-30 artean tenpluaren esku zeuden; batzuk zuzenean tenplua mantentzeko baliatzen ziren eta beste batzuk artisauek lantzen zituzten. Gainerakoak alokatu egiten ziren. Beste %75-70ak jauregien eta pribatuen esku egoten ziren.

HIRI-ESTATUEN ARTEKO HARREMANAK

Normalean, bi harreman mota desberdin ematen ziren; gatazkei dagokionez, lurren okupazioak eragiten zituzten. Horrela, Lugalzagesi Ummako erregeak hegoaldeko kontrola eskuratu zuen K.a. 2400-2300 bitartean.

Bigarren, diplomazia harremanak edota aliantzak ematen ziren. Horiek baketsuak izaten ziren eta askotan opari trukeez berresten ziren. Hala ere, aliantzek batez ere ez zuten denbora luze irauten.

- Lagash-Umma gatazka (K.a. 2500-2350)

Gatazka honen inguruko informazio ugari aurki daiteke *Saien Estela* errege-inskripzioan. Bi lurraldeen artean zegoen lurralde lauengatik sortu zen gatazka, *Gu'edena* izenekoak. Hain zen gatazkatsua, ezen 150 urte iraun zuen konfrontazioak, baina azkenean, Umma benetako garaileztat atera zen.

2. SEMITAK ETA INDOEUROPARRAK EKIALDE HURBILEAN

2.1 SARGON AKADEKOA ETA UR III DINASTIA

AURREKARIAK

Sargon erregea baino lehenago bazegoen lurralde bateratu zituen inperio bat, baina azkar erori zenez, Sargon hartzen da inperioaren sortzaileztat. Azken hau Behe Mesopotamian kokatuta zegoen eta Sargoni esker lurraldea zabaltzen zuten.

SEMITAK

Semiten jatorria nahiko ezezaguna da, baina Sumeriarren garaikideak ziren. Herri semita horiek, ordea, hizkuntza semitikoa erabiltzen zuten. Hala ere, hizkuntza desberdintasunagatik talka egiten zuten baina ez zen gerra handirik egon.

AKADIAR INPERIOA (K.a. 2334-2193)

Akadiar inperioan hizkuntza desberdina erabiltzen zen eta errege-boterea botere erlijiosotik banatu zen. Gainera, Akadiar Inperioko hiriak ez ziren hiri-estatuak, inperioaren barneko hiriak baizik. Horrela, hirien autonomia murriztua zen eta botere zentralizatua nagusitu zen, lehen estatu zentralizatua eta bateratua izanik.

Honen aurrean, errege bat hiltzean erreboltak izaten ziren Akadiar boterearen aurka.

SARGON I (K.a. 2334-2279)

Sargon I.aren jatorria iluna eta mitikoa da, nahiz eta existitu zen. Uste da bere ama sazerdotisa zenez eta haurdun zegoenez, erditzerakoan semea saski batean bota eta noble batek hezi zuela.

Denborarekin, Sargonek Akkad eta Kish konkistatu zituen eta Lugalzagesi erregea garaitzean, lurraren errege titulua eskuratu zuen, Sumeria osoa bereganatu eta bateratuz. Dinastia berri bat eratu zuen eta botere militar handia garatu zuen, lurraldeak gobernatzeaz gain, kanpaina militarrek egiten jarraitu zuen, itsasora arte. Gainera, merkatal bideak kontrolatzeko asmoa zuen ere.

Boterea bermatzeko, Sargonek antolamendua eta kontrola konkisten bidez mantendu zuen. Kontrola bi ibaien bidez zeukan eta bertan, Anatoliaraino zeuden nekazaritza bideak kontrolatzen zituen. Hedapenarekin, kontrol oso handia zegoen eta merkatal bideak kontrolatzea garrantzitsua zen.

- Aldaketak Inperioan

Sargon I.a erregea zela, hainbat aldaketa egon ziren Akadiar Inperioan. Hasteko, Akkad hiriburu berria izendatu zuten, baina hirietako gobernari eta errege gehienak mantendu ziren. Zehazki, lurraldeetako erregeek Ensi titulua zuten eta agintari militarrek, Akadiarrak zirenak Shagin.

Horrez gain, urtea gertakizunen arabera kontatzen hasten zen. Aipatzekoa da lurraldeko toki askotatik etengabeko erresistentzia saiakerak zeudela.

- Sargonen oinordekoak

Sargon hiltzean inperioak Mediterraneo ondoko zatia galdu zuen, erresistentzia puntuak sortuz.

Hurrengo erregea bere seme zaharrena Rimush (K.a. 2278-2270) izan zen eta Arabian merkataritza kontrolatzeko espedizioak egin zituen. Hau hiltzerakoan ere erresistentziak sortu ziren. Jarraian Manishtusu (K.a. 2269-2255) erregea izendatu zuten buru, baina gorteko konspirazioen ondorioz hil zen.

Hainbat erresistentzia eta matxinada egon ziren, Eblaren askatasuna ahalbidetuz. Gainera, Iparraldeko herriak matxinatu ziren eta Asiriak independentzia lortu zuen.

Amaitzeko, Manishtusu hiltzean, hurrengo erregea Sargonen iloba zen Naram Sin izendatu zuten, zentralizazioa ezarri berriz ere.

NARAM SIN (K.a. 2254-2218)

Erljioaren boterea eskuratzearekin batera, bere boterea legitimatu zuen eta bere burua jainkotu zuen, Akad hiriko jainko babesletzat izendatuz. Finean, “*unibertsoaren lau aldetako erregea*” zen.

Naram Sin erregea zela, Kish eta Ur hirietako erregeen erreboltak egon ziren, botere erdigunetik gertu egon zirenak. Alabaina, Naram Sin-ek errebolta horiek gainditu zituen. Gainera, iparralderantz kanpainak egin zituen eta Eblaren suntsipena zein boterearen hedapena egin zuen, galdutako lurak berreskuratuz.

Errege honen gaitasunak handiak baziren ere, periferian arazoak sortu ziren, guztia kontrolatzeko adibidez. Horrela, Susa hirian Elam-ekin bake eta aliantza sinadura egin zuen; Elam inperiotik kanporatua izan zen, menpekotasuna ezabatuz.

AKKADIAR GIZARTEA

Lehen esan bezala, Akkadiar inperioko boterea zentralizatuta zegoen Akkad hiriburuan. Bertan bizi zen erregea eta lege nagusiak bertan egiten ziren. Akkaden zeuden artisauak eta artelan hoberenak, baita merkataritza-gune nagusiak ere. Hala ere, Akkad arkeologikoki ez da ezagutzen.

Erregea sistema guztiaren erpina zen eta gizartea bere inguruan antolatzen zen. Asko bidaiatzen zuen inperioan zehar eta gorteko azpi jokoak ahalbidetzen zituen.

Gizarte honek idazkera propioa zuen, baina erritueterako Summeriarra erabiltzen zuten, *lingua franca* moduan mantenduz.

- Ekonomia

Inperioa zentralizatuta zegoenez, zergak erdiguneari ordain behar zitzaizkion; hiri bakoitzak bere zergak jauregi zentralari ordaintzen zizkion, bere autonomia mantentzeko.

Kontabilitatea estandarizatu zuten, taulatxoan bitartez antolatu eta urteak Akadiar egutegiarekin zehaztuz. Horrela, kontu administratiboak idazkera kuneiformez eraman zituzten aurrera, akadiarrez hain zuzen ere.

Erregeek lur askoren gaineko jabetza eskuratu zuten konkisten bitartez. Horiek konfiskatu eta gerrako beteranoen artean banatzen zituzten. Horiek belaunaldiz belaunaldi pasatu ahal ziren, bide bera jarraituz.

- Erljioa

Erljioan, jatorrizko triada nagusia mantendu zen, Anu (zerua), Enlil (atmosfera) eta Ea edo Enki sumertarrez (ura). Alabaina, bigarren triada bat sortu zen; Sin (ilargia), Shamash (eguzkia) eta Ishtar (Venus).

Akkad hiria erregeak fundatutako izanik, botere erlijiosoa eskuratu zuen, heroi jainko antzera gurtzen zutela. Horrela, Akkad hiriko jainko babesle bihurtu zen.

INPERIOAREN AMAIERA

Naram Sin erregea hiltzean, barne ezegonkortasuna gailendu zen. Lurraldean kontrolean atzerakada eman zen; Elam inperiotik aske zegoen eta Kish zein Uruk hirietan iraultzak eman ziren. Gainera, mendietatik erasoak jasaten hasi ziren, Guti-en eskutik, Akkad suntsitzera iritsi arte. Horrela, berriz ere hiri-estatu independenteak sortu ziren, eta Akad konkistatu ondoren, Lagash eta Ur hiriak gailendu ziren, dinastia berriekin.

UR HIRIKO III. DINASTIA (K. a. 2111-2003)

Ur hiriko dinastiaren bidez, Behe Mesopotamia bateratuta geratu zen eta zentralizazioa ematen saiatu ziren. Gainera, tenplu, kanal eta harresiak berregin zituzten eta lege-kodea berridatzi. Ezkontza diplomatikoak izan zituzten atzerriko dinastiekin.

Hiru gunetan bereizten dira garai honetan; hasteko, periferian lurralde independenteak kokatzen ziren. Jarraian, Susa, Asur eta Mari hirietan gobernariak bizi ziren eta bukatzeko, inperioaren erdigunean Nippur hiriburu erlijiosoa, Uruk dinastiaren jaioterria eta Ur hiriburu nagusia zeuden.

Ur hiriko dinastia amaitzearen arrazoiak Amorruten erasoak izan ziren, beste hainbatekin batera; alde batetik, lurraldearen produktibitate arazoak zeuden eta bestalde, ibaien uholde bereziki handiek nomaden bizimodua oztopatu zuten.

Amorruta hainbat herri multzoen deitura zen, mendebaldeko jendea hain zuzen ere. Semita hizkuntza erabiltzen zuten eta Akad garaitik ezagunak ziren. Aipatzekoa da III. milurteko amaierarako asko bizi zirela Behe Mesopotamian.

2.2 INPERIO PALEOBABILONIKOA (K.a. 1792-1595)

GARAI PALEOBABILONIARRA (K.a. 2000-1600)

Garai paleobabiloniarrean bi garai babesten dira; alde batetik, lehen garaian hiri-estatuak ziren nagusi, hegoaldean Isin eta Larsa eta iparraldean Asur, Ebla eta Eshunna. Bestalde, bigarren garaian Babiloniako I dinastia nagusitu zen, amorririk boterean zeudela.

BABILONIA

Babiloniar hiritxo bat zen, eta K.a. 1900 inguruan Samu-Abum erregearen konkistak Babiloniako I. dinastiaren sorrera ekarri zuen. Erregearen egin beharra herria babestu eta hornitzea zenez, bere boterea legitimatzen zuen horrela. Pixkanaka, Ekialde Hurbilean boterea irabazten joan zen, inguruko hiriak kontrolatuz. Horrela, estatu indartsuagoak eratu ziren lurraldean zehar.

HAMMURABI (K.a. 1790-1750)

Babiloniako I. Dinastiaren 6. erregea izan zen eta inperioaren momentu estrategikoan agindu zuen. Inperio moduko bat eratu zuen lurralde osoan eta beste hiri-estatuarekin aliantzak egin zituen, kanpo-erasoetatik babesteko. Horri esker, Elam-en kontrako garaipena lortu zuen, baita Larsa suntsitu ere, aliantzan parte ez hartzeagatik. Inguruko lurralde eta hiri guztiak bere egin zituen.

Iturri dagokienez, Babiloniar gutxi aurkitzen dira, baina Mari hirian taulatxoak eta eskutitz batzuk aurkitu dira.

Erligioarekiko, Marduk jainkoaren gurtza orokortu zen inperio berrian zehar eta jainko nagusia bihurtu zen.

BABILONIAR GIZARTEA

Hammurabiren boterea jainkoak emandako zela babesten zen, beraz horrela legitimatzen zen. Gainera, Hammurabiren lurralde garaipenak mirestuak ziren eta botere absolutu guztia eskuratuta zuen. Zentzu horretan, "Hammurabiren kodea" deituriko legedi bat eratu zuten, erregearen boterea azpimarratzeaz gain, inperioan ezartzen ziren lege eta ohiturak ezagutzera ematen ditu.

- Gizartea

Orokorrean, Talioiaren legea aplikatzen zen herrian; horrela, zure ekintzek ondorio berdintsua izaten zuten (begia begiaren truke).

Gizartea hiru taldetan banatzen zen.

1. Hiritarrak (awilum)→eskubide osoak dituzte eta lurra izateko eskubidea dute.
2. Gizon askeak baina menpekoak (mushkenum)→dirurik ez dutenez, beraien burua saldu eta jauregiarentzat lan egiten zuten; artisauek, merkatariek, administratiboak...
3. Esklabuak (wardum, amtum emakumeak)→esklabuek eskubide gutxi zituzten eta hiritarren menpekoak izaten ziren. Emakume aske batekin ezkondu ahal ziren eta epaitegira joateko eskubidea.
4. Asiru edo gerra harrapakinak→ez zuten estatus juridikorik eta beraien jabea estatua edo erregea zen.

Oro har, desberdintasun sozialak handiak izaten ziren kategoria horien artean.

- Familia

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna existitzen zen, gizona emakumearen gainetik gelditzen zela. Ezkontzak monogamoak eta patriarkalak izaten ziren. Hala ere, emakumeek dibortziorako eta dotea eramateko eskubidea zuten, betiere jarrera ona izan bazuten. Kontrara, errekaratzen zituzten, auzoaren erabakiaren arabera.

- Administrazioa

Legedia aplikatzerakoan azken hitza erregean zuen, baina administrazioa departamentuetan banatuta zegoen, posta-zerbitzu azkar batekin.

BABILONIAREN HEGEMONIAREN AMAIERA

Hammurabiren heriotzaren ondorioz, ezin izan zuten inperioa mantendu eta iraultzak ematen hasi ziren hegoaldean zein erdialdean. Gainera, hiri abandonua eman zen Ur eta Uruk bezalako hirietan, hegoaldean batez ere.

Iparraldean boterea gailendu zen, goi mesopotamian, baina XVI. mendean Babilonia iparraldetik erasotu zuten hititek (Mursili erregearen aginduz) eta ezin izan zuten kontrolatu. Sakeoaren ondoren, kasitek eskuratu zuten boterea Babilonian, 1200. urtera arte.

2.3 HITITAK (K.a. 2000-1200)

Hititak Anatolian (gaur egungo Turkia) bizi ziren eta herri bakarra ziren, herri askoren multzoan solifikatuta, baina ez zegoen botere garrantzitsu edo zentralik. Orokorrean, sumertar eta asiriako merkatariek, negozio independenteak, edota asiar jatorriko hattiak bizi ziren bertan, hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten zela bertan; hatti, luwita eta hitita. Merkatariek asiriarrak, esaterako, KARUM koloniak eratu zituzten lurralde horietan.

Hala ere, Asia, Europa eta Afrika lotzen zituen lurraldea izanda, oso estrategikoa eta konfliktiboa izan zen. Gainera, lehengai asko zeuden eta gune aberatsa zen, jende asko erakarrit.

Ez dira iturri idatzi asko aurkitu, baina arkeologikoak ugariak dira. KARUM kolonietan hainbat taulatxo aurkitu dira. Lehen inskripzio gisa aurkeztzen da BRONTZEZKO DAGA, Anitta errege

hititari erreferentzia egiten diolarik. Bertan idazkera kuneiformea azaltzen da, asiriarrengandik hartu zutena.

Erlijioari dagokionez, hititen jainko nagusia HATTIKO EKAITZEN JAINKOA zen.

HATTI ERREINUAREN FASEAK

- 1) Antzinako Erreinua existitu zen, 1700 eta 1500 urte tartean.

Iturri idatzi zein arkeologikoak ezagutzen dira. Garai honetan, Hatti zen hiri garrantzitsuena, erreinu bateratu honen hiriburu bihurtu zena. Urte horietan zehar, errege garrantzitsuenak gailendu ziren:

HATTUSILI I. (1650-1620)→Konkista-garaia hasi zuen erregea izan zen eta mugak itsasora arte luzatzea lortu zuen. Hala ere, ondorengotza arazoak izan zituen eta bere heriotzaren ondoren, gatazkak sortu ziren.

MURSILI I. (1620-1590)→Anatoliatik atera eta hegoalderantz jo zuen erregea izan zen, Siriarantz zabalduz. Babilonia ere konkistatu zuen. Bere kontrako konspirazio batzuk existitu ziren eta ondorengotza arazoak izan zituen.

- 2) Aro Iluna etorri zen ondoren, 1500etik 1450ra.

Estatuen ahultasuna gailendu zen garai honetan, baita iturri eskasak aurkitu ere. Hainbat hiri suntsituak izan ziren, eta beste asko abandonatuak.

Gainera, hititen kompetentzia moduko bat sortu zen; nahiz eta Babilonia suntsitu zuten, kasitak sortu ziren lurralde horietan eta Mesopotamia iparraldean Mittani-ko hurritak indarra hartzen hasiak ziren.

- 3) Erreinu Berria, XIV eta XIII mendeetan zehar.

Hititek boterea berreskuratu zuten 1500 urte inguruan eta lurralde handiak kontrolatzen zituzten.

Egoera horretan, nazioarteko sistema antzeko bat osatu zuten; hainbat inperio nagusi zeuden lurraldeetan zehar, hala nola, Babilonian kasitak, Hatti, Egipto edota Mittani. Inguruan, Elam eta Mizenasak bezalako biztanleria kokatzen zen. Horrela, herri eta lurraldeen arteko oreka bat bilatu zen, bata bestearen gainean jartzeko botererik ez egoteko. Hala ere, beraien arteko gatazkak gerra edo diplomazia bitartez erantzuten ziren.

Nazioarteko hizkuntza bihurtu zen Akadiarra.

Hedapen militar bat eman zuten hititek eta Anatolia zein Siriako Alepora arte zabaldu ziren. Hala ere, kompetentziatzat zituzten Egipto eta Mittani. Hain zen horrela, ezen 1274an Qadesh-ko gudua eman zen Egipto (Ramses) eta Hattiren (Mursili II) artean; kasu honetan, hititak atera ziren garailetzat, baina oreka mantentzea besterik ez zuten lortu.

Urte batzuen buruan, 1259an, BAKE-ITUNA sinatu zuten Ramses II eta Hattusili erregeen artean. Bi bertsio egin zituzten, egiptiarra eta hitita. Bertan, hainbat puntu adostu zituzten; ez zioten bata besteari erasorik egingo, 3. eraso baten aurrean elkar lagunduko ziren eta ez zien bertako disidenteei lagunduko.

3. EGEOKO MUNDUA o.a.a. II. MILURTEKOAN

3.1. KRETA MINOIKOA

Mito asko ezagutzen dira Kretaren inguruan, baina arkeologiak asko lagundu du historia berreraikitzen. Bereziki Arthur Evansek, 1899ak indusketa garrantzitsuak egin baitzituen bertan. Jauregi bat aurkitu zuen, eta Minos minotauroaren egoitza bezala identifikatu zen.

KULTURA MINOIKOA

Kultura minoikoa brontze aroan garatu zen eta kultura aurre helenikoa da (Grezia baino lehenagokoa). Kreta uhartean garatu zen, baina Egeoan zehar eragin zuen. Horrela, Europa ekialdeko lehen zibilizazioa izan zen.

Kronologiari dagokionez, 4 aldi bereizten dira; jauregi aurreko garaia (2600-2000 K.a.), lehen jauregi garaia (2000-1700 K.a.), bigarren jauregi garaia (1700-1400 K.a.) eta jauregi osteko garaia (1400-1100 K.a., mizenikoak agertzean).

- Jauregien hastapenak eta ezaugarriak

Irla honetako demografia eta ekoizpenaren gorakada zentralizatzeko modua izan zen jauregi minoikoen sorrera. Ekoizpenaren bilgunea eta banaketaren ardura bereganatu zituen eta zentro ekonomiko garrantzitsua bilakatu zen.

Jauregiak toki politiko, erlijioso eta ekonomikoak bihurtu ziren; politikoki, elitea bertan bizi zen. Erlijioari dagokionez, santutegia edo tenplua jauregian txertatuta ageri zen, barnean hartzen zuela. Ekonomikoki, biltegiak eta lantegiak jauregi barnean aurkitzen ziren. Horrela, eliteentzat lan egiten zutenak bertan egiten zuten jardun ekonomikoa.

Jauregiak hiri barnean kokatzen ziren, baina monumentalak izaten ziren. Gainera, inguruko kontrola eskuratzen zuten, bigarren mailako kontrol gunean ezarriz, hala nola, jauregi txikiagoak beste lurralderen baten.

Jauregi garrantzitsuenak honakoak dira; Knossos, Malia, Hagia Triada edo Festos.

- Talasokrazia

Itsasoaren kontrolari garrantzia handia eman zioten minoikoek eta Akrotiri oso gune garrantzitsua bihurtu zen (gaur egungo Santorini). Horrela, merkataritzan protagonismo handia irabazi zuen itsasoak.

GIZARTEA

Orokorrean, informazio eskasa dago gizarte minoikoaren inguruan. Hala ere, hierarkizazio garbi bat zegoen harremanetan.

1. gobernatzaileak, elitea→jauregietan bizi ziren.
2. Goi-mailako agintariak→luxuzko etxeak bereganatu zituzten.
3. Merkataria eta artisauak→batzuek jauregiarentzat lan egiten zuten.
4. Nekazariak eta abeltzainak→beste biztanleria.

Ez zuten harresirik erabiltzen hiriak babesteko, eta bakezaleak zirela sinesten da.

- Idazkera

Hasieran, piktogramak erabiltzen zituzten eta “Lineal A” idazkera asmatu eta erabiltzen zuten, zeramikazko taulatxoetan idazten zutelarik. Horrela, jauregiak erregistroak eramaten ziren. Gaur egun oraindik ez da idazkera hori ulertu, deszifratu gabe baitago.

- Erljioa

Iturri arkeologiko eta ikonografikoak aurkitu dira aspektu honen inguruan.

Orokorrean, emakume jainkosak eta apaizak gailentzen dira; horiek parpailadun gona eta korpiñoarekin janzten dira, bularra kanpoan daramatela eta naturarekin lotzen dituzten kapelak. Osagarri bezala, aizkora bikoitza eta adarrak erabiltzen dituzte eskuetan.

Bestalde, zezenak zentralitate handia hartu zuen Kretan, arte figuratibo baten bitartez erakusten zena; taurokatapsia zezen baten erabileraz akrobaziak egitean datza, normalean gaintik salto eginez.

Sakrifizioak ere egiten ziren, emakume apaizen eskutik burutzen zirenak, hala nola, libazioak; likidoak (ardo edo beste zerbait) botatzen ziren jainkoari eskaintzeko ofrenda gisa. Orokorrean, ofrendak egiten ziren.

3.2 GREZIA MIZENIKOA

Heinrich Schliermann izan zen kultura honen aurkikuntzaren aintzindari, izan ere, Homeroren lanak irakurri eta egiazkoak zirela demostratzeko beharra sentitu zuen, Troya aurkitu nahian. Horrela, 1871n indusketak hasi zituen Asia Txikian eta Priamoren Altxorra bezalako aurkikuntzekin topatu zen.

Mizenas gunearen kasuan, indusketak 1876an hasi zituzten Peloponeson. Bertan, zirkulu hilobiak aurkitu ziren, baita urrezko objektuak eta “Agamenon” maskara ere, nahiz eta kronologia okerra egotzi zitzaion.

Aztarnategi nagusiak erreinu independentetan aurkitu dira, jauregi bakoitzak bere lurraldeen jabetza zuela. Gainera, Atenasen ere aztarna batzuk aurkitu dira.

KRONOLOGIA

- 1) Lehen aldia (K.a. 1600-1400)

Kultura mizenikoaren hasieratzat hartzen da eta K.a. 1600-1500 artean datatzen diren putzu hilobi kolektiboak izan ziren aurkikuntza nagusia.

K.a. 1500 eta 1400 urte tartean gorakada bat eman zen, eta Tholoi tumuloak agertzen hasi ziren. Gainera, Kreta okupatu zuten eta jauregien eredu erabiltzen hasi ziren.

- 2) Goraldia (K.a. 1400-1200)

Gotorleku jauregi handiak eraiki ziren etapa honetan, hala nola, Pylos, Myzenas, Knossos, Tiryns...

Urte horietan nazioarteko merkataritza hazi egin zen; ekialde hurbileko harremanak sustatu zituzten, hititekin esaterako. Hain zen horrela, ezen Ugarit hiriko (ekialde hurbileko hiri bat) auzo batean mizenastar kultura materiala aurkitu den.

JAUREGIEN EGITURA

Jauregiak hainbat zati eta funtzio beregain hartzen zituen, espazio handia okupatuz. Lehenik Megaron gela egoten zen, erregearen tronu gela zena. Bertan, ataria, gela eta gela nagusia zeuen alde batetik, eta bestetik sutondoa eta zutabeak.

Gainontzeko gelak inguruan kokatzen ziren hainbat erabilerarekin; biltegiak, artisautzarako lantegiak, bizitokia (elitea), tenpluak eta erabakiak zein batzarrak egiteko espazioak barne biltzen zituen gune honek.

Orokorrean, jauregi guztietan gailentzen zen horma dekorazioa.

GIZARTEA

- Zirkulu hilobiak eta tholosak

Zirkulu hilobiak diogunean, borobil formako espazio baten barruan hainbat hilobi kokatzeari deritzo. Hilobi bakoitzaren sakonean pertsona bat lurperatzen zen eta askotan urre asko erabiltzen zen, gorpu batzuk urrez estalita agertzen direlarik. Horrez gain, bitxi eta arma asko ere ageri dira, hildakoekin batera utzita.

Tholosei dagokienez, harriz egindako estrukturak dira, tumuloen funtzioarekin. Bertaratzeko, hasieran pasillo bat izaten du eta fondoan gelaxka bat, gorpua bertan aurkitzen dela.

- Idazkera

Buztin taulak dira gehien ageri direnak. Gainera, kultura honetan agertu zen "Lineal B" idazkera, greko arkaikoa ere deritzona eta grekoaren aitzindari izan zena. Horrela, minoikoen desberdina zen hizkuntza erabiltzen zuten eta horrek jauregien burokrasia adierazten zuen, jarduera ekonomikoen erregistroa eramanez; kontabilitatea, pertsonak bere ogibideekin, ondasunak (sartutakoak + ateratakoak) edota inbentario moduko bat.

- Indarkeria-liskar testuingurua

Ikonografiaren bitartez jakin dugu honako hau, eta hiri guztiak harresituta ageri dira. Gainera, gotorleku asko eraikitzen ziren eta armen presentzia oso altua zen orokorrean.

- Gizartearen antolaketa hierarkikoa

Gizartea, eta oro har biztanleria, hierarkizatutako 7 taldetan banatzen zen.

- 1) Wanax → erregea
- 2) Lawagetas → ejerzitoko agintariak
- 3) Equietai → goi mailako agintariak (zaldunak)
- 4) Telestai → nekazaritza guneen kontrola zeramatzenak.
- 5) Artisauak
- 6) Damos → herri xehea
- 7) Esklabu bihurtutako pertsonak

- Artisautza eta merkataritza

Orokorrean, artisautza fina lantzen zuten; bitxiak, metalgintza... hainbat alorretan espezializatu ziren. Horrela, minoikoen eraginez horma margoetan sakondu zuten eta gerra zein borrokak gai nagusizat erabiltzen zituzten.

- Erlijioa

Jainko jainkosa grekoak gurtzen hasi ziren, nahiz eta minoikoen eragin erlijiosoa nabaria izan. Lehen aipatutako buztin taulatxoetan jainkoen izenak ageri ziren, baita egiten ziren praktika erritualak ere.

ERREINU MIZENIKOEN AMAIERA

K.a. XIII. mendetik aurrera, krisia gailendu zen lurralde horietan; nahiz eta jauregien gainbeherak eragin handia izan, kultura mantendu egin zen urte horietan.

K.a. 1200 eta 1100 urte tartean, jauregien suntsipen orokortu bat ematen hasi zen eta despopulazioa nabari izan zen. Hala ere, hau ez zen kasu isolatua izan, izan ere, Ekialde Hurbileko suntsipen orokortu bat ematen ari zen, Hititak, Mizenas, Asiria... kultura askoren gainbehera eta suntsipena ekarriz eta arrazoiak anitzak izanez (Egipto salbuespen). Honi **Brontze Aroaren amaierako krisia** deritzo.